GRAMATIKA BATZORDEAREN IRIZPENA DURANGOKO UDALETIK EGINDAKO GALDERARI BURUZ

Durangoko irudi korporatiboa adierazteko erabili nahi den eredua ezin esan daiteke gaitzestekoa denik Gramatika batzordearen ustetan: isolaturiko egiturak dira hor irudiaren hiru osagaiak:

DURANGO

Udala Ayuntamiento

Esan bezala, era isolatuan ematen denerako (paper ofizialetako menbrete gisa edo izenburu gisa, adibidez) bakarrik litzateke baliagarria. Ezin liteke erabil, ordea, testu edo perpaus batean txertatua; honako hau, beraz, baztertzekoa litzateke:

*DURANGO UDALAK erabaki duenez, ...

Horren ordez DURANGOKO UDALAK eman behar-ko litzateke, zalantzarik gabe, euskal gramatikaren arauek agintzen duten bezala.

Azkenik, gogorarazi nahi da ontzat eman den goiko ereduaren ondoan badela euskal eta erdal gramatikei atxiakiagoa den bat, hitz bat gehiago eman behar bada ere molde horretan. Ondoko hau litzateke:

DURANGOKO UDALA	armarria	AYUNTAMIENTO DE DURANGO

Gasteizen, 1999ko urtarrilaren 7an.

Jesus Mari Makatzaga,
Gramatika batzordeko idazkaria